



# ITZARRI

## **BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA BENETAN BORONDATEZKOA?**

Aurreikuspen plan hau Administrazio langileen erretiratze prestazio publikoentzako osagarria da. Administrazioaren ekarpenak derrigorrezkoak dira eta benetan ordaintzen diren ordainsarien arabekoak. Bestalde, langileek borondatezko ekarpenak egin ahal izango dituzte (soldatatik kenduko lituzketenak). Itzarri erakundeko prestazioak bateragarriak dira langileek Gizarte Segurantzako beste erakunde publiko zein pribatu batzuetan dituztenekin.

Itzarri plana administrazioak zenbait sindikaturekin egindako akordioaren ondorioa da. STEE-EILASEk sinatu ez zuen akordio horren arabera, "ordainsari diferitu" gisa hartzen da, adostutako ordainsari-igoeraren zati bat plan horretara desbideratzen baita, benetako igoeratik kenduz.

Administrazioak egiten dituen ekarpenak ez dira ordainsaritik kenduko, baina langileak planean parte hartzeari ezezkoa emango balio, aipatutako ekarpen horiek ez lituzke bereganatuko, eta beraz, jokabide honek diru galerak ekarriko litzeki. Izan ere, planera bideratu gabeko ehunekoa administrazioak ez baitio langilearen nominari gehituko.

Laburbilduz: inori ez zaio oraingo soldatatik ezer kenduko, baina planean parte hartzea erabakiko ez balu, administrazioak planera bideratu beharko lukeen kopurua galdu egingo luke.

Hau guztia honela baloratzen dugu:

- ✓ Lehenengo, administrazio publikoak pentsio plan pribatuak sustatzea ezin dugu onartu. Administrazio publikoaren lehentasunak pentsio sistema publikoari eustea eta hobetzea izan beharko luke. Plan pribatu hauek sistema publikoa ahuldu egiten dute, berez dagokion kapitala desbideratuz eta bere etorkizuna zalantzan eta arriskuan jarritz.
- ✓ Plan pribatu hauen kudeaketa oso onuragarria da ez langileentzat, hainbat finantza-erakundeentzat baizik; gainera, erakundeotan, planak adostu dituztenetako batzuk hartzen dute parte.
- ✓ Langileen soldataren igoera zati bat plan hauetara desbideratzea onartezina da. Bidezkoagoa litzateke norberak erabakitzea berea den dirua non inbertitu.
- ✓ Praktikan bi soldata-igoera ezarri dira. Bata aurreikuspen plana onartzen dutenentzat eta beste bat, txikiagoa, Itzarrin ez sartzea erabaki dutenentzat. Kontua da, azken hauek ez luketela ez oraingo nominan, ez aurrerago ere diru hori eskuratuko. Gauzak horrela, plana borondatezkoa izatea guztiz zalantzazkoa da, baita plan hau sortu duen akordioaren zilegitasuna ere.
- ✓ Langileen ordainsariaren parte batekin egingo duten "plan zuhur" horren berri ematea, saltsa hori martxan jarri duen administrazioari eta bultzatu duten sindikatuei dagokie. Beraiek azaldu beharko dute zein baldintzatan, nora eta zein ondorio fiskalekin desbideratu duten legez langileena den diru hori.